

Argazki bat

Munduaren iluntasun opakoen argia bilatu nahi izaten du batek, eta batzuetan, eman egiten diote argazkiek. Hor dauka, esate baterako, bere txikitako argazkia, ondo gordeta. Noizean behin tiraderatik atera, eta begira egoten zaio. Ez du galdetzen zinek, non, noiz, nola egin zuten argazkia, behin baino gehiagotan galdetu du, askotan esan diote, berdin dio, ez du galdetzen zergatik, zer esan nahi zidaten, hor nago argiak bilduta, iraganeetik begira, gogoratzen ez dudana iragan bat ere banaizela esaten, neure burua ikusi nahi izaten dut argazkian, argazkiko ume

horren begirada mesfidati eta samurrean, ez daukat kasik argazki paper hori besterik garai haietatik, amak egingo jertse gorria, praka motzak, etxe aurreko parkean nago, harri kokorretan, hatza daukat ezpain ertzean, zer gertatzen ari den jakin nahiko banu bezala, kamerari begiratu diot, abisu emango zidaten, ba ote nekien jada batek beti posatzen duela kamera aurrean, ezin nuen jakin, hiru urte pasatxo dauzkat hor, hiru urte, nola berreraikiko nuke iragana argazkirik gabe, nola neure burua, argazki bat da garai hartatik daukadan guztia, argazki bat, eta gerora kontatu didatena. Argi printza bat, neure iluntasun opakoa zeharkatzen.



Jira

Xabier Gantzarain



Bira

Idurre Eskisabel

ederki baino hobeto baitakite gaurko paisaia soziolinguistiko eta hezkuntza-hedabide tresneriarekin ezinezkoa dela espainiera taxuz ikasiko ez duen haurrik haztea, ederki asko dakiten bezala, asko eta asko direla inoiz euskara taxuz ikasiko ez dutenak, hain justu, paisaia eta tresneria horren ondorioz. Eta, bukatzeko, ingelesaren aitzakia darabilte euskara irekitasunari eta mundutartasunari kontrajartzeko berriz; alegia, zeharka adierazten dute gure haurrak ingeles hiztun kosmopolita bihurtzeko traba euskara dela, euskara ikasi beharra. Galanta ziria! Badakit euskararen kontrako erro-erroko jarrera dagoela PPren eta UPDren jokabidean. EAJrean, badaezpada, nahiago dut ez jakin zer dagoen.

Zuzendaria:

Martxel Otamendi

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: Bidera

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 10/02/2013

Exemplar: 2.990

Editeur: Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxel Otamendi

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakziokoa

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakziokoa

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

naifarroa@berria.info.

berria

Bake-idazkaritza berria: begirada berrirantz?

Jon Mirena Landa

Zigor Zuzenbideko irakaslea, UPV/EHU

Bakeaz, Giza eskubideez eta Biktimez arduratu behar den gobernu-egitura aurreko asetean argitara atera da azkenik: bake-idazkaritza berria dugu Eusko Jaurlaritzan. Gobernuaren egitura mailaz igo da: ez da zuzendaritza bat, lehendakariaren-gandik ezin hurbilago dagoen kudeaketa-unitate gorena baizik. Hori berez ona da, gaiak duen garrantzia —lehenasuna— azpimarratuta gertatzen den neurrian. Baina egituren nondik norakoak gorabehera, edukiarri dagokionez bi abiapuntu ezarri zaizkio errepide-orri gisa: Oroimenaren institutua sortzea, batetik, eta elkarbizitzaren plana, bestetik. Alegia, legegintzaldiaren hasieran 4 urteko ekimen-zerrenda zirriboratu nahi da plan baten formaz, eta gero egitura berri bat sortu nahi da, Institutua, gaiotako lana etorkizunean erakunde horrek aurrera eramanez. Bi tresnak abiapuntu jartzea ona da, baina oraindik ez da jakin zein edukiz nahi diren hornitu. Artikulu honetan eduki horri buruzko hausnarketa batzuk nahiko nituzke mahai-gaineratu, gaiok aurrera ateratzeko laguntzeko balio izatekotan.

Giza eskubideen zuzendaritzaren edukiak eta Terrorismo-Biktimen Arretarako Zuzendaritzarenak lehenengo aldi batu dira bake-idazkaritzan. Baina gai horiek ez ezik, oroimen historikoaren gaiak (alegia, Guda zibila eta Frankoren errepresioaren biktimenak) ere horra joan dira. Nire aburuz, Planak

giza-eskubideen ikuspegi hartu beharko luke abiapuntu eta euritako: hau da, giza eskubideen filosofia eta eskakizunak dira gaion guztion oinarri komuna. Oinarria, ez ikuspegi intelektual hutsetik, baizik eta baita sendatu behar diren urraketek ere —batez ere—. Planak islatu beharko du zein herri zauritua utzi digun indarkeriak, sendabidean jartzeko. Planak ekimen-sorta definitu beharko du, hiru arlo nagusi horietan kaltea konpontzeko, justizia egiteko, egia aldarrikatze.

Baina horrek lehenengo zailtasun bati, iraganeko inertzia indartsu bati alegia, aurre egin beharko dio: ETArekin biktimen begirada bakarri. Hau da, ETArekin biktimen begiradatik giza eskubideen eta bake-ikuspegi orohartzailaigora igaro beharra dago, aipatu biktimak bidean galdu gabe. Terrorismoaren aurkako borroka biktimen politikak ere txertatu zuen bere estrategiaren baitan eta horrela Terrorismoaren Biktimen Legeak, lehentasun osoa edukita, bi egitarau ezberdinei ekin zien: bat, biktimen kalte pertsonala konpontzei; eta bi, terrorismoaren «testuinguru» eta esanahi sinboliko borrokatzei. Lehenengoa, biktimen kalte pertsonala konpontzea, berandu etorri zen: lehenago egon beharko zatekeen 70, 80 edota 90 hamarkadatan hainbat biktimen sufrimenduz ahazturik. Eta hori Euskadin edo Nafarroan edo Espainian, antzeko. Egitarau hori zilegi da, guztiz. Mantendu beharrek. Ahal izanez gero, hobetu beharrek.

Baina bigarren egitaraua, hau da, terrorismoaren aurkako borroka sinbolikoa, «deslegitimazio» sozial eta politikoa tranpaz beterik ze-

goen eta egon badago. Zein da euskal abertzaleen kulpak? Zein da gizar-tearen «isiltasunaren» esanahia? Gaixotasun morala duen gizar-tea al da gurea? Zeinek lagundu omen zuen terrorismoa, isilik omen zegoelako? Zeinek ezin dio ideologiari eutsi horren izenean hiltzen da-eta? Zein da terrorismoaren laguna tortura salatzeagatik? Horra hor galdera sorta luzea, amaigabekoa, lasai, taxuz eta era publikoan ezbaidatu ezin diren alderdiz beteta.

Deslegitimazioaren dimentsio publiko-sinbolikoa lan handia dago egiteko, arlo honetan ez dago elako adostasunik. Dimentsio hori kontrainsurgentziarako erabilia izan da, «kontakizunen borroka» gisa: deslegitimazioa eta ekidintza versus gatazkaren teoria. Arlo honetan oraindik ere erabilera politikoa dago. Horra hor askatu beharreko lokarri nagusia!

Adostasuna ez dago, baina legeak —terrorismo legeak— orekarik gabeko eduki askorekin egin dira: bai Espainiakoa baita Euskadikoa ere. Biek maila kolektibo-sinbolikoa mantentzen duten diskurtsoa berrikusteko garaia heldu da. Berrikusi bai, baina kontuz, eta, batez ere, inongo kulparik ez duten ETArekin biktimak ahalegin horretan mindu barik. Izan ere biktimen politikak erabilera ustela egon izana ez da biktimen kulpak, eta horien norabidea zuzentzeko orduan bere benetako eskakizun zilegiak kontuan hartu behar dira zinez. Inork ez dezala bidaia aprobetxatu biktimak ahazteko, aintzat ez hartzeko, mezei dutena ukatzeko. Baina, aldi berean, askatasuna izan dezagun behingoz aitortzeko ETArekin biktimen politiketan, orain artekoetan,

onartu ezin diren edukiak ere badi-rela. Eta horietatik nagusienak hurrengo hauek: biktimen legeak erabili direla gizar-tearen aurkako presuntzio batetik, abertzale guztiak terrorismoaren errudun balira bezala; biktimen legeak aldi bakarrek irakurketa historiko osatugabea egin dutela, ETArekin ez den indarkeria gutxietsiz, baita ukatuz ere; biktimen legeak erabili direla kontsentsutik abiatu beharrean askotan kontsentsua behartzeko.

Esandakotik erraz ulertuko da zergatik gaur existitzen den biktimen lege bakarra, terrorismoarena dela, hain zuzen ere, ETArekin terrorismoa lege-alorrean serio hartzen den bakarra delarik.

Horregatik, aldi berrian ETArekin biktimak, noski, baina baita duintasun berbera duten bestelakoak ere, denak, begirada berean elkarrekin topo egitekoak dira politika publikoei dagokionez. Gizar-tean (Glencree, Erreterian...) urratsak aurrera doazen neurrian, erakundeek hori lagundu behar dute: Bake-idazkaritzaren plan berriak lagundu beharko luke. Eta denborarekin, helmuga, biktima guztiak lege batean egotea izan beharko litzateke, bakoitzak bere berezitasunean baina gutxieneko duintasunetik abiaturik.

Bake-idazkaritza berriak begirada berria badakar, horren eskutik lege-esparru berriak etorri beharko dira: biktimen lege berriak, giza eskubideen urraketak arautzen dituen tresna juridiko berriak... bake-lege baten barruan, nōire aburuz. Eta orduan legea ez litzateke izango botere-ariketa hutsa, oinarritik, herriatik datorren borondatea bideratzeko tresna ezin egokia goa baizik.